



# IBAIZABAL IKASTOLAKO TUTORETZA PLANA

DURANGALDEKO  
IBAIZABAL KOOP.E.

## AURKIBIDEA:

	Orr.
▪ Sarrera _____	3
▪ Zergatia _____	3
▪ Tutorearen funtzioak _____	4
▪ Tutorearen zereginak _____	6
▪ Tutoretza lanaren antolaketa _____	9
▪ Tutorea aukeratzeko erizpideak _____	13

## ERANSKINAK:

▪ Tutoretza Planaren esparru orokorra _____	14
▪ Tutoretza Planaren helburuak _____	15
▪ Tutoretza lana burutzeko teknikak eta estrategiak _____	16
▪ Nola programatu tutoretza? _____	17
▪ Tutoretzatik garatu beharreko kompetentziak _____	18

## **IBAIZABAL IKASTOLAKO TUTORETZA PLANA**

### **SARRERA:**

Tutoretza planak tutorearentzako gida izateko helburua du. Dokumentu honetan tutore lanak egingo dituen irakasleak bete beharko dituen funtzio eta helburuak zehazten ditugu.

Gida honetan agertzen den plana eguneratu egin beharko aldi-aldian, hezkuntza ezartzen ditugun hobekuntzak tutoretza planean ere gehitzeko. Aldaketa eta hobekuntza horiek aplikatzeko ezinbesteko tresna izango da urtean-urtean tutore bakoitzak egingo duen tutoretza-planaren ebaluazio-balorazio txostena.

Ikastola hezkuntza komunitatea da eta ikasleak hurrengo mailetarako prestatzeko zeregina du.

Ikasle bakoitzak dituen gaitasunak garatzeko egokitutako irakaskuntza bultzatu nahi dugu, aniztasunaren integritatearekin den irakaskuntza.

Ikastolako bizitzan parte hartzea erraztuko diogu ikasleari, ikasketa prozesutik hasi eta proiektu desberdinetako jardueretaraino. Ikasleak biziko dituen testuinguru ezberdinekin binkuluak eta erlazioak indartu behar ditu ikastolak: familia, gizartea, lagunartea...

Hezkuntza prozesua ikastola osotzen dugun guztion elkarlanarekin lortzen dela ulertzen dugunez, beharrezkoak izango dira:

- Familien inplikazioa, elkarlana
- Ikasketa Buruak eta tutore taldeak ematen duen etengabeko laguntza eta aholkua.
- Ikastolako irakasleen eta tutoreen arteko elkarlana.
- Irakasleen arteko interakzioa.
- Ikastola taldeak sortutako material lagungarria.

### **ZERGATIA:**

- Tutorearen lana gure hezkuntza proiektuaren zutabeetariko bat izanik, gurasoek eta ikasleek horrela baieztatzen dutelako inkestetan, artezkaritza kontseiluan, egin izan ditugun bestelako bileretan, ...
- Tutore lana era bateratuan egiteak lanaren eraginkortasuna hobetzen duelako.
- Tutorearen lanari buruz esaten duguna eta egiten duguna bat etorri behar delako.

## **TUTOREAREN FUNTZIOAK:**

Tutoretza eta orientazio akademiko-profesionala eta pertsonala ikasle bakoitzarekin landuko ditugu. Orientazioaren arduradunak irakasle guztiak badira ere (irakasleak berea du funtzio tutoriala, bai maila indibidualean eta baita talde mailan ere) irakasle-tutoreek ardura berezia izango dute ikasle bakoitzak dituen hezkuntza premiei erantzuteko. Horretarako konfidantza giroa sortu beharko du ikasleekin. Nola lortu konfidantza giro hori?

- Zintzotasunez jokatzuz
- Umiltasunez, ikasleen parean jartzeko gai garela erakutsiz.
- Emandako berba betez
- Jarrera irekia erakutsiz, laguntzeko prestutasunaz.

## **Tutorearen funtzioak:**

- Tutore bakoitzaren ardura izango da ikasleen banan banako jarraipena egitea. Horretarako ezinbestean bere ikasleak ondo ezagutu beharko ditu ahalik eta laguntzarik egokiena eskaintzeko.
- Orientazio pertsonal eta akademikoa eskainiko dizkio ikasleari. Hurrengo ikasketetan matrikula egiteko laguntza eta erabakia hartzeko bidelaguna izango da.
- Ikaslea ikastolako proiektuetan parte hartzeko zirikatu du.
- Bidean ahalik eta ikasle gutxien gelditzen ahaleginduko da.
- Derrigorrezko hezkuntzatik ez derrigorrezkora pasatzen direnez ikasleak, etapa aldaketak dakartzan berrikuntzei egokitzeko laguntza eskaini eta baliabideak jarriko ditu.
- Familiarekin harremana mantentzeko ardura izango du, ikaslearen berri aldiro emanez. Familia, ikasleen ikasketa prozesuan inplikatzeko ahalegina egingo du.
- Tutorea izango da ikaslea eta familiaren arteko zubi-lana egitearen ardura izango duena ikaslearen ikasketei dagokienez.
- Ikaslearen integrazioa gelan eta ikastolan erreztearen ardura izango du, horretarako ikasleen arteko elkar-ezagutza, talde lana eta oinarritzko elkar-bizitza arauen lanketa eta betetzea sustatuko duelarik.
- Ebaluazio bilerak modu eraginkorrean dinamizatzearen ardura izango du. Horretarako ikasleari dagozkion datu guztiak prest izango ditu. Klaustroak tutorearekin elkarlanean ebaluazio akademikoa egingo du.
- Balore jakinen lanketa egingo du. Balore hauek Ibaizabal ikastolako Hezkuntza Proiektuan onartutakoak eta jasotakoak dira: elkarlana, elkarlaguntza, herritartasuna, errespetua ( norberarekiko, besteekiko eta ingurumenarekiko)
- Urteko plangintza egiteko ardura izango du tutore taldeak, saio bakoitzeko ekintza plana diseinatuz.
- Gatazkak sortzen direnean bideratzaile lana egingo du ikasleen artean edo ikasle eta irakaslearen artean. Zuzendaritzaren ardurakoak diren arazoak gertatzen

direnean bitartekari lana egingo du ikasle eta zuzendaritzaren artean. Bizikidetza planean gatazka kasuetan jokatzeko prozedura zehatzago azalduko dugu.

Eskola-orduetatik kanpoko zereginak: barne-araudia eta bizikidetza-plana errespetatzen direla bermatzearen ardura guztiona den neurrian, arau haustea gertatzen direla ikusten dugunean danori dagokigu neurri zuzentzaileak jartzea, dela eskola-orduetan zein haueetatik kanpo ere, bereziki atsedenealdian eta jantoki orduetan. Lan hau egoki egiteko plantilla bat sortuko da, non gertatu diren arau hausteen jarraipena egingo den, jarri diren neurri zuzentzaileak adieraziz eta hauek izan duten ondorioa baloratuz.

Dokumentuaren amaieran jasotzen den eranskinean jasota daude funtzio guzti haren zehaztapenak: *ikus eranskina I*

## **TUTOREAREN ZEREGINAK**

Tutoretza plan honen barruan, jasota daude, tutore zein orientatzailearen zereginak zeintzuk diren. Hala ere tutoreen zeregin hoiak aipatu aurretik esan beharra daukagu, zeregin hauek, ondo zehaztutako hiri jarduera-eremutan garatzen direla:

### **TUTOREAREN ESKU-HARTZE EREMUAK**

**1 EREMUA: Zuzenean ikasleekin garatu beharreko ekintzak, bai taldean eta baita banaka ere.**

Tutoreak ikasleekin zuzenean egiten dituen lanak dira, banaka zein taldean. Tutorea da ikasle bakoitzaren jarraipen osoaren eta laguntzaren erreferentea, ikasle bakoitzak bere proiektu pertsonala eraikitzen lagunduko duena.

Eremu honen barruan sartzen dira taldeko tutoretza orduak, ebaluazio batzarrak, ikasle bakoitzarekin egindako elkarrizketak, gatazketan egindako bitartekaritza lanak, laguntza bilatzen emandako orduak, erabakiak hartzen laguntzen emandakoak.

**2 EREMUA: Irakasleekin, irakasle taldearen parte gisa garatu beharreko ekintzak.**

Tutorea da irakasle taldearen koordinatzailea eta bere ikasle taldearen hezkuntza jardunean eragina duten irakasleen koordinazioa bideratuko duena.

Eremu honen barruan daude taldeko esku hartzeak, irakasle taldearen bileren koordinazioa, ebaluazio saioen koordinazioa, irakasle taldeko irakasle bakoitzarekin egindako elkarrizketak ikasleari buruzko informazioa jasotzeko.

Eremu hau lantzeko hilean behin tutore eta irakasle guztiak bilduko dira..

**3 EREMUA: Ikasleen familiekin, legezko arduradunekin eta beste gizarte eragile batzuekin garatutako ekintzak.**

Hau funtsezko eremua da ikasleei laguntza eta jarraipen egokia emateko.

Ezinbestekoa da tutoreak hezkuntza arloko esku hartzearen koordinazioa egitea, ikasleen ikasketa eta orientazio prozesuan esplizituki esku hartzen duten familiekin eta gizarte zerbitzuekin.

Horrez gain, tutoreak taldeko ekintzak garatuko ditu familiekin: bilerak ikasturte hasieran, ikas-bidaiaren berri emateko, kurtso bukaerako agurrean eta egoerak hala eskatzen duen guztietan. Gizarte zerbitzuekin harremana izango du, beharrezkoa den kasuetan.

### **TUTOREAREN ZEREGINAK EREMU BAKOITZEAN:**

Tutorearen zeregin guztiak bakar batean laburbildu ditzakegu: Ikasle bakoitzaren eta talde osoaren ikasketa eta heldutasun prozesuari jarraipena eta laguntza ematea. Ikasleekin egiten dituen ekintzak eta irakasleekin, familiekin eta kanpoko zerbitzuekin egiten dituenak funtsezko zeregin hori lortzeko egiten ditu.

Eremu bakoitzean tutoreek beteko dituzten zereginak gehiago zehazteko, **tutoretza planaren garapenean tutorearen eginbeharra osatzen duten zereginak** deskribatuko ditugu jarraian.

1.- Ikasleei lotuta:

Ikastetxean eta lagun taldean ondo egokitzen laguntzea eta ikastetxeko jardueretan parte hartzea bultzatzea. Hau da, ikasleen interesak ezagutzea eta taldean zein ikastolako bizimoduan integrazioa bideratzea eta haiengan parte hartzeko jarrerak bultzatzea.

Ikasleekin aldezkatu bilerak egitea bakarka zein taldeka.

Ikasleen ikasketa dokumentazioa betetzea.

Beharrezko den uneetan, ikasleei aholku lagungarriak ematea: hautazko ikasgaiak aukeratzean, lan mundurako bidearen inguruan...Ikasketa ibilbideak ezagutu eta lan mundua arakatzeko laguntzea.

Ikasleen ikasketa prozesuen jarraipen orokorra egitea, hezkuntza erantzun egokiak emateko.

Ikasleen eskaerak, kezak, kezak...bideratzea eta taldeko ordezkariarekin lankidetzan, ikasle kontseilura bideratzea, han landu daitezkan.

## 2.- Irakasleei lotuta:

Bere taldeko irakasle taldea koordinatzea, bai programazioan, bai ebaluazioan, bai irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuko banakako egoeren eta egoera orokorren azterketan. Horretarako, tutoreek hileroko bilerak egingo dituzte bere taldeko irakasleekin.

Tutoreen arteko koordinazio bilerak egitea tutoretza planean egin beharreko hobekuntzak proposatzeko eta hurrengo ikasturteko tutoretza saioetan landu beharreko gaiak erabakitzeke.

Ikasleen ezaugarriei buruzko informazioa ematea maila horretako irakasleei

Ikasleen ikasketa zailtasun orokorrei erantzutea, eta ahal izanez gero, aurre hartzea.

Irakasgaien estatistikak eta zuzendari pedagogikoak eskatzen dituen datu guztiak betetzea

Irakasle taldearen laguntzarekin ikasleen ebaluazio prozesua koordinatu, antolatu eta gidatzea.

Ebaluazio bilera baino lehen:

- Tutore bakoitzak ikasle guztiei buruzko informazioa (ikasgai guztietakoa) izan beharko du (ikasle bakoitzari buruzko txostena beteta egon beharko da)
- **ALEXIA** aplikazioan nota guztiak sartuta egon beharko dira (errekuperaziokoak barne)

Ebaluazio bileran bertan:

- Tutore bakoitzak (5-10 minututan) gelari buruzko **sintesi bat** egingo du, aipagarrienak diren datuak emanez (suspentso kopurua, arazoak dituzten ikasleak, ondo doazenak, ...)
- Irakasle taldeak gela osoaren balorazio orokor bat (giroa, lan ohiturak, ...) egingo du (guztira 15 minutu).
- Ondoren ikaslez ikasle, tutoreak behar duen informazio guztia eskuratuko du irakasleengandik: ikaslearen jarrera, bilakaera eta eman beharreko aholku eta oharrak.

Ebaluazio bileretan talde bakoitzean klaseak ematen dituzten irakasle guztiek hartuko dute parte. Irakasle bakoitzaren ekarpenak, ezinbestekoak izateaz gain, bilera aberastu egiten dutelako.

### 3.- Familei, legezko tutoreei eta beste gizarte eragileei lotuta:

Ikastetxearen eta hezkuntza etaparen berri ematea gurasoei edota legezko tutoreei.  
Hezkuntza prozesuaren jakinaren gainean jartzea eta lankidetzat eskatzea.  
Ikaslearen familiarengandik informazioa jasotzea, ikaslea hobeto ezagutzeko.  
Gurasoei laguntza eskaintzea ikasketa eta portaera arazoaren konponketan, ikasketen antolaketan eta plangintzan, ikasketa eta lanbide arloko erabakiak hartzeko garaian.  
Familiak ikastolako erabaki organoetan parte-hartzera gonbidatzea: Batzar nagusia, Artezkaritza kontseilua, auzolana,...

Familei egiten zaien asegarritasun inkesta koordinatzearen ardura tutorearena izango da bere taldean.



## **TUTORETZA LANAREN ANTOLAKETA:**

Batxillergoko tutoretza jarduerak, eskola ordutegiaren barruan jarriko dira:

1. mailan, astean, tutoretza ordu bat.
2. mailan urteko plangintzaren arabera (hilean saio bat edo bi jarriaz). Saioak sistematizatzea komenigarria da, ordu eta egun zehatzak jarritz, denok –ikasle eta irakasleak – jakitun egoteko.

Tutore lana errazteko, tutoretza plana urtero ezagutaraziko da, bereziki tutore guztiei. Ikastolako Ikasketa Burua eta Tutore koordinatzailea arduratuko dira horretaz irakasle guztien laguntzarekin.

1. eta 2. mailako tutoreen arteko koordinazioa ezinbestekoa da. 1. zein 2. mailako tutoreen koordinatzailea, Orientatzailea izango da. Berau, saio bakoitzean egin beharrekoa zehaztu eta tutoreei jakinarazteaz arduratuko da.

Hamabostean behin etapa bakoitzeko tutoreek koordinazio bilera bat egingo dute, hilean zehar egin beharrekoak adostu eta amankomunean jartzeko.

1. mailako tutoreak, asteazkenetan 4. orduan bilduko dira.
2. mailako tutoreak, ostiraletan 5. orduan.

Bilera hauez gain, ikasturte bakoitzaren bukaeran tutore koordinatzaileak prest utziko dituen “Sekuenzializazio dokumentuak” erabiliko ditu tutore bakoitzak bere tutoretza saioak gidatzeko.

Hilean behin 1. eta 2. mailako tutoreak klaustroarekin bilduko dira ikasleen jarraipena egiteko. Bilera horiek erabiliko dituzte irakasleek ikasleekin izan dituzten gorabeheren berri emateko, eta tutoreek euren ikasle taldeari buruzko informazioa gaurkotua izateko. Bilera hauek, arazoen aurrean tutore taldeak hartzen dituen erabakiak modu bateratuan hartzea ahalbideratuko dute. Gertatzen diren arazo, gatazka eta jokabide desegoki guztiak jasotzeko plantilla bat egongo da.

Tutore koordinatzaileak kurtso bukaeran memoria bat idatziko du ikasturtearen balorazioa eta ebaluazioa eginez. Horren arabera, hurrengo urteko plana zehaztuko da, beharrezkoak diren hobekuntzak aplikatuz.

### **Familiekin bileren maiztasuna:**

- Iraileko gurasoen aurkezpena bideratuko du. Bilera honetan tutoreak ikasturteari buruzko informazio zabala eman eta familiak ezagutzeko aukera izango du. (Tutorea eta familia)
- Jarraipen bileren ostean, telefonoz kasu gehienetan. Beharrezkoa den kasuetan elkarrizketa pertsonalak egingo dira: maila pertsonal edo akademikoan arazoak ikusten direlako edo tutoreak beharrezko ikusten duelako.
- Lehenengo ebaluazioaren ostean banan-banako elkarrizketak burutuko dira.
- Bigarren ebaluazioaren ostean, tutoreak beharrezko ikusten duenean.
- Hirugarren ebaluazioaren ostean, ostean banan-banako elkarrizketak burutuko dira.
- Kurtso bukaeran agur-ekitaldian parte-hartuz.

Tutore batek urtean zehar 70 ordu inguru eskaini behar dizkiola tutoretzari kontutan hartuta, ondoren proposatzen den antolaketa modu hau ezarriko da. Bertan ikasle, familia eta gainontzeko irakasleekin mantenduko dituen bileren maiztasun eta iraupenak zehazten dira.

Kalitateko estandarrak jarraituz, familiekin egiten diren bilera (eta modu formalean egiten diren bestelako komunikazioak) guztien erregistroa, IKASDAT aplikazioan jasoko da.

Ikasturte bukaeran erregistratutako datuak eta tutoreen memoriak aztertuko dira, martxan jarri den antolaketa era baloratu eta hurrengo ikasturterako hobekuntzak proposatzeko.

<b>1. MAILA</b>	1. Ebaluazioa	2. Ebaluazioa	3. Ebaluazioa	Guztira
Ikasleekin Bilerak (taldean eta bakarka)	<b>10 tutoretza ordu</b> Ikasleekin bilerak bakarka: <b>15 min ikasle bakoitzarekin.</b> 20 ikasle. Guztira <b>5 ordu</b> Asteko tutoretza orduak aprobetxatu ikasleekin biltzeko	<b>10 tutoretza ordu</b> Ikasleekin bilerak bakarka: <b>15 min ikasle bakoitzarekin.</b> 20 ikasle. Guztira <b>5 ordu</b> Asteko tutoretza orduak aprobetxatu ikasleekin biltzeko	<b>10 tutoretza ordu</b> Ikasleekin bilerak bakarka: <b>15 min ikasle bakoitzarekin.</b> 20 ikasle. Guztira <b>5 ordu</b> Asteko tutoretza orduak aprobetxatu ikasleekin biltzeko	<b>30 ordu</b>
Guraso eta ikasleekin bilerak	<b>10 ordu</b> <b>30 min guraso bakoitzarekin.</b> 20 ikasle guztira.		<b>10 ordu</b> <b>30 min guraso bakoitzarekin.</b> 20 ikasle guztira.	<b>20 ordu</b>
Gurasoekin Harremana	<b>10 ordu</b> 3 ordu ebaluazio bakoitzean korreo elektronikoak erantzun eta beharrezko ikusten diren telefono deiak egiteko.			<b>10 ordu</b>
Beste Irakasleekin harremana	<b>16 ordu</b> Koordinazio orokorra + jarraipen akademikoa. <b>1. mailako koordinazio bilerak:</b> asteazkenetan 4. orduan. Hamabostean behin bildu, urtean <b>16 ordu</b> inguru. <b>Koordinazio bilera orokorrak:</b> hilean behin, Tutoretzarako zehaztutako asteazkenetan.			<b>16 ordu</b>
<b>GUZTIRA</b>				<b>76 ORDU</b>

- Ikasleekin banakako bilera tutoretza orduetan erreala da? Jarraipen bilera eta 5 aste beranduago batzuekin...ondoren gurasoei kasu egin... ez da beranduegi?? (Egoitz)
- Guraso bilerak prestatzeak denbora asko kentzen duela uste dut ( niri behintzat ). Ez dago jasota taulan (Egoitz)
- Ebaluaketero 3 ordu emailak idatzi/erantzuten nahiko gutxi dela uste dut. Momentuz jarraipen bileran komentatutakoarekin 4 idatzi ditut eta ordubete baino gehiago kendu dit.

<b>2. MAILA</b>	1. Ebaluazioa	2. Ebaluazioa	3. Ebaluazioa	Guztira
Ikasleekin talde handian	14 saio guztira ikasturtean zehar			
Ikasleekin bilerak bakarka	<b>10 ordu</b> 30 min ikasle bakoitzarekin. 20 ikasle.	<b>10 ordu</b> 30 min ikasle bakoitzarekin. 20 ikasle.	<b>5 ordu</b> 15 min ikasle bakoitzarekin. 20 ikasle.	<b>25 ordu</b>
Gurasoekin bilerak	<b>10 ordu</b> 30 min guraso bakoitzarekin. 20 ikasle guztira.		<b>10 ordu</b> 30 min guraso bakoitzarekin. 20 ikasle guztira.	<b>20 ordu</b>
Gurasoekin harremana	<b>10 ordu</b> 3 ordu ebaluazio bakoitzean korreo elektronikoak erantzun eta beharrezko ikusten diren telefono deiak egiteko.			<b>10 ordu</b>
Beste irakasleekin harremana	<b>16 ordu</b> Koordinazio orokorra + jarraipen akademikoa.  <b>2. mailako koordinazio bilerak:</b> ostiraletan 5. orduan. Hamabostean behin bildu, urtean <b>16 ordu</b> inguru.  <b>Koordinazio bilera orokorrak:</b> hilean behin, Tutoretzarako zehaztutako asteazkenetan.			<b>16 ordu</b>
Orientazio saioak	Orientazio saio berezi bat 1. ebaluazioaren ostean			
<b>GUZTIRA</b>				<b>69 ORDU</b>

### **TUTOREA AUKERATZEKO IRIZPIDEAK:**

Tutore berdinak egingo die jarraipena ikasleei batxilergoko ziklo osoan (plangintzak ahalbideratzen badu). Modu honetan tutoreak ikaslea eta honen familia hobeto ezagutuko ditu eta ondorioz denon artean egin beharreko lana eraginkorragoa izango da.

Gelako tutorea izendatzerakoan, gela horretan irakasle dela bermatzen ahaleginduko gara. Irakasleak talde horretan izan ditzakeen afinitateak ere kontutan hartuko dira. Tutore bakoitzak, ordu lektibo bateko esleipena izango du (tutoretza konpartituen kasuetarako) bere lan jardunean.

Jarraipen pertsonalizatua modu eraginkorrean egin ahal izateko, kasu batzuetan ikastaldeko bi tutore (tutoretza konpartitua) jartzeko aukera aztertuko da kopuruen arabera. Helburua talde ahalik eta txikienak osotzea izango da, jarraipen pertsonalizatua eskaini ahal izateko.

### **TUTORETZA-PLANAREN ESPARRU OROKORRA**

Orientazioak eta Tutoretza-planak hezkuntzak bere osotasunean dituen aldagai guztiak barneratu behar ditu. Hau da, Orientazioa ez dugu ulertzen eskaintzen den zerbitzu gehigarri bat bezala, ikastetxearen egituraren barnean txertaturik dagoen baliabide bat bezala baizik. Hau guztia kontutan izanik, Tutoretza-plana, ondorengo oinarrietan kokatzen dugu:

- Hezkuntza-orientabidea etengabeko laguntza-prozesu sistematikoa da, eta hezkuntza-jardueran sartuta dago.
- Ikasleei bere proiektu pertsonal eta profesionala eraikitzen laguntzea da orientazioaren helburua.
- Orientaziorako edukiek eskolako curriculum guztian dute eragina eta alor guztietan landu behar dira. Ikasketa prozesu horren atal bat esplizituki landuko da tutoretzan, hezkuntza pertsonalerako garrantzia duelako, ondorengo ikasketetan eragina duelako eta bizitzako hainbat egoeratan erabili beharko duelako ikasleak.
- Ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren barruan tutoretza planak jasoko ditu ikasleen orientaziorako ekintza planaren egitura, ikasleari bizitzarako oinarritzko gaitasunak eskuratzen laguntzeko helburua duena.
- Tutoretza-planaren helburua da ikasleak bere burua ezagutu eta onartzen laguntzea, sozializazio prozesuan trebatzen laguntzea, erabakiak hartzen laguntzea, gatazkak konpontzen ikasten laguntzea, bere bizitzako gidari izaten laguntzea.

Lan honetan, tutore taldeak eta eragile guztiek kontutan hartu beharreko zenbait faktore:

**Banakotasuna:** Pertsona konkretuekin lan egingo da eta kontutan izan beharko dira norbanakoen ezaugarri, interes gaitasun eta motibazioak.

**Aniztasuna:** Tutoretzak aniztasunari erantzuna emateko bideak izan behar ditu. Tutoretzaren inguruko ekintza plan honek anitzak diren ikasleekin lana ongi egin dezagun lagundu nahi du.

**Integrazioa:** Pertsona bere osotasuenan hezi behar da eta bere formakntzako eremu guztiak dira kontutan hartu beharrekoak: eremu pertsonala, intelektuala, gizartekoa, afektiboa...

**Prebentzioa:** Orientazioak, ahal duen neurrian, alde aurretik jokatu behar du, arazoak sortu aurretiko lanean.

**Garapena:** Gizakia etengabeko garapenean dago eta bere inguruak moldatzen eta baldintzatzen du garapen hori. Ikasleen garapena eta banakako desberdintasunen eta beraien inguruko aldagaien arteko interakzio baten barruan kokatu behar gara, ikastexea lehen mailako faktorea izanik.

**Sentsibilizazioa:** gelako zein gure gizarteko gai, gatazka egoerei buruz ikaslearen sentsibilitatea lantzen ari dela jasoko du ( kideen egoera pertsonalak, ingurugiroaren zaintza, errespetatze, kontzientziatzea, mundu mailako giza arazo, gatazkak,...)eta horrela ez bada orientazio honetan tresnak eta baliabideak eskainiko dizkio.

**Berdintasuna:** genero berdintasunarekiko jarreraren ohartze eta sentsibilizazioa, gure eta giza etorkizun harmoniatsu baten oinarri

## **TUTORETZA PLANAREN HELBURUAK.**

Hauek dira Ikastolak tutoretza planarekin lortu nahi dituen helburuak:

1.- Irakaskuntza pertsonalizatzen lagundu; pertsona bere orokortasunen harturik eta ez arlo akademikoan bakarrik.<sup>3</sup>

2.- Ikasleek, ikaste prozesuan dituzten beharrei erantzuna eman, egokitzapen kurrikularrak eta metodologi neurrien bidez. Tutoretzaren bidez, metodología eduki edota helburu batzuk egokitzen saiatuko gara, baldin eta beharrezkoa bada. Tutoretzak ikasleei eta irakasleei beren errendimendua hobetzen laguntzen die. Tutoretzak ikasleen behar bereziei antz ematen laguntzen du, baita ikasleak premiazkoak dituen neurriak ezartzen ere. Detekzioaz eta erantzunaz hitz egiterakoan, bai ikaskuntza eta baita irakaskuntza arloa ere garrantzitsuak direla esan nahi dugu eta arazoren bat gertatzen denean, biak diagnostikatu eta tratatu behar dira.

3.- Arloarekin batera: Hezkuntzaren alderdi orientagarriak nabarmendu, ikasleak bizi diren inguru konkretua kontutan hartuz eta etorkizunari begira.

4.- Garapen pertsonalaren prozesuetan laguntza eman, ikasleak bere identitate eta balio sistema propioa garatu ditzan. Bide honetan, garrantzia ematen diogu izpiritu kritikoari eta informazioa aukeratzeari, ikasleak bere irizpideak izan ditzan.

5.- Ikasketa zailtasunei aurre egin, posible den neurrian agertu ez daitezen; hauek agertzean, zailak baitira moldatzen.

6.- Ikastolako hezkuntza komunitatean gauden pertsona guztien elkarrekintza.

7.- Osasunerako hezkuntza egokia eskaini, ikasleek osasun ohitura egokiak izan ditzaten.

8.- Ikastolako bulego materiala, altzariak, azpiegiturak...eetik hasita, ikasleari ingurugiroa errespetatu eta maitatzen irakatsi.

9.- Ikasleari dagozkion erabaki hartzeak erraztu, taldeka zein bakarka.

10.- Ikastaldeen kohesio-elementuak izan ditzaten lagundu.

11.- Gatazkak elkarrekin eta bitartekaritza erabiliz moldatu ditzaten lagundu.

12.- Inguruko gaiak pil-pilean daudenean garrantzia eman eta ikasketa prozesuan barneratu.



## **TUTORETZA LANA BURUTZEKO TEKNIKAK ETA ESTRATEGIAK:**

Tutore bakoitzak beharrezkoa duen lanerako autonomia izango badu ere, talde moduan honako teknikak duten garrantzia eta eraginkortasuna azpimarratzen ditugu:

- Banan-banako elkarrizketak: bi pertsona edo gehiagoren arteko informazio elkartrukatzea da, elkarrizketatzaileak bideratzen duena eta honek dituen trebeziak arabera datu bilketa osotuena lortzeko helburuarekin.
- Behaketa sistematikoa: Aurretiaz planifikatutako hautemateko era bat da, datuak biltzeko helburuarekin, egoeren inguruko hipotesiak formulatu edo egiaztatu ahal izateko.
- Talde-dinamika saioak
- Soziogramak: taldearen egitura informala ezagutzeko teknika da. Ikasleari ekintza ezberdinak proposatzen zaizkio eta ekintza bakoitzerako zein ikasle aukeratuko lukeen eta zein ez galdetzen zaio. Irakasleari taldeari buruzko informazio osagarria ematen dio teknika honek.

Teknika hauen guztien azken helburua hauxe da:

- Ikaslea ahalik eta ondoen ezagutzea, aholkularitza egokiena eskaintzeko.
- Ebaluazio saioetan irizpide egokiak finkatzea.
- Hurrengo ikasketak egiteko aholkuak eman eta erabakia hartzen laguntzeko.
- Irakasle taldea koordinatu eta indartzea, esperientzia ezberdinak eta ikasleari buruzko informazioa elkartrukatuz.
- Pertsona bezala garatzen laguntzea

## **NOLA PROGRAMATU TUTORETZA?**

Tutoretza koordinatzaileak zuzendaritza taldearekin elkarlanean gutxienezko edukiak finkatuko ditu ikasturtearen hasieran. Ondoren irakasle talde guztiaren jakinean egon beharko litzateke

Tutore koordinatzaileek plangintza proposamen bat zehaztu eta proposatuko dute tutoreen artean. Hortik aurrera gela bakoitzean lana modu koordinatuan egiten saiatuko gara, tutore bakoitzak autonomia izango duelarik adostutako plana garatzeko metodología aplikatzerakoan. Gaurkotasunak eskatzen duelako edo bestelako arrazoi justifikatuengatik plangintza aldatu ahal izango du tutore bakoitzak, beti ere zuzendaritza eta gainerako tutoreekin koordinatuta. Tutoretza lanak programatzeko eta jarraipena emateko, hilean behin koordinazio bilera finko eta sistematikoak jarri beharko litzateke. Gai batzuk Haur hezkuntzarako ere programatu beharko lirateke.

Orientazio profesionalari begira landu beharreko edukiak hauek dira gure ustez: (

HELBURUA:	EDUKIAK:
Ikasleak beren burua ezagutzen laguntzea	Gaitasunak, interesak, nortasuna, balioak, motibazioa errendimendu akademikoa Ikasteko estiloak, lan egiteko modua1. mailan, eta ikasturte hasieran, Ikasteko tekniken lanketa sistematikoa egin beharko litzateke. Nortasunaren garapenarekin loturiko gaiei garrantzi handia emengo nioke, etapa zaila nahasia eta aldakorra pasatzen ari direla ahaztu gabe
Informazio akademiko eta profesionala eskuratzea	Hezkuntza sistemaren aukera ezberdinak: Lanbide heziketako zikloak, Unibertsitatea, on-line irakaskuntza, irakaskuntza ez arautua
Informazio erabilgarria eskuratzea	“Curriculum Vitae”a egitea, bakarkako elkarrizketak Lan mundura hurbilketa bat egitea
Erabakiak hartzeko prozesuan laguntzea	Jarrera, kompetentziak, askatasuna eta erantzunkizuna,

## **TUTORETZATIK GARATU BEHARREKO KONPETENTZIAK**

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak (2006) zortzi oinarrizko konpetentzia edo gako gomendatzen ditu bizitza osorako hezkuntza iraunkorra bultzatzeko asmoz:

1. Ama-hizkuntzan komunikatzea
2. Hizkuntza arrotzetan komunikatzea
3. Matematika-konpetentzia eta Zientzia-eta Teknologia-arloko oinarrizko konpetentziak
4. Konpetentzia digitala
5. Ikasten ikastea
6. Gizarte-konpetentziak eta gizabide-konpetentziak
7. Ekimen-zentzua eta enpresa-espirtua
8. Kultura-kontzientzia eta kultura-adierazpena

Espanian LOEk (2006) ezarritako araudiak oinarrian bat datoz nagusiki europar gomendioarekin.

Ikastolek ere baikorki baloratu dute "Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumuma" deituak egindako proposamena.

Hauek dira proposatzen diren hezkuntza-konpetentzia orokorrak:

- 1. Ikasten eta pentsatzen ikastea**
- 2. komunikatzen ikastea**
- 3. Elkarrekin bizitzen ikastea**
- 4. Norbera izaten ikastea**
- 5. Egiten eta ekiten ikastea**

Curriculumak garatzeko, Batxilergoan honako hezkuntza-gaitasun orokorrak proposatzen dira:

## HELBURU OROKORRAK HEZKUNTZA GAITASUN OROKORRAK

1.– Modu autonomoan erantzukizunez bizitzen ikastea, norbere burua ezagutu, osasun mentala eta fisikoa zaindu eta ohitura osasuntsuak garatzen ikasiz. Gizaki guztion eta oraingo eta etorkizuneko belaunaldien ondarea diren naturaz eta natura-baliabideez modu erantzulean gozatzen ikastea.

2.– Ikasten eta pentsatzen ikastea, informazioa interpretatzen, sortzen eta ebaluatzen, erabakiak hartzen eta arazoak konpontzen, ikasteko eta lan egiteko ohiturak eta ikasteko estrategiak ikasiz, ezagutzaren eta esperientziaren askotariko arloetan arazoak identifikatu eta konpontzeko ezagutza zientifiko eta matematikoaren metodoak aplikatzen ikasiz.

3.– Hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean komunikatzen ikastea, modu kritikoa erabiltzen eta interpretatzen ikastea hedabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta baita musika- eta gorputz-hizkuntza artistikoak, gorputz-hizkuntza plastikoak eta bisualak ere.

4.– Elkarrekin bizitzen ikastea, harreman positiboak izaten eta gatazka-egoeretan elkarrizketa eta negoziazioa erabiltzen, modu aktibo eta demokratikoan parte hartzen, taldean lan egiten eta elkarlanean jarduten eta aniztasuna errespetatzen ikasiz.

5.– Pertsona bezala garatzen ikasi, norbera izan, emozio negatiboak kontrolatu eta modu positiboan eta errealistan norbere burua baloratu, autonomia eta norbere erabakien erantzulea izan eta printzipio etikoen arabera jardunez.

6.– Gauzak egiten eta horiei ekiten ikastea, erabakiak hartzeko eta erantzukizuna nor bere gain hartzeko ekimena izan, ahalegina eta zailtasunak gainditzea baloratu eta bizitzako eremu ezberdinetan ekimen saiatuak praktikatu.

### **32. artikulua.**– Tutoretza eta orientazioa.

1.– Hezkuntza Orientazioa hezkuntza-jarduerako laguntza-prozesu jarraia eta sistematikoa da, eta horren helburua ikasleei proiektu pertsonalaren eta profesionalaren jabe izateko gaitasunak lortzen laguntzea da.

2.– Tutoretza Ekintzako Plana, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren barruan, Oinarrizko Hezkuntzatik Batxilergorako ikasle guztiei zuzenduriko ekintzak, orientaziorako eta bestelakoetarako, antolatzen dituen egitura da, eta banakako zein taldeko ekintzen bidez landuko dira

Plan hori garatzea tutoreari dagokio, irakasle-taldearekin eta talde horretan eragiten duten bestelako eragileekin koordinatuz. Halaber, ikastetxeko orientazioko profesionalen aholkularitza izango du, batez ere orientazio profesionalari dagokionez.

4.– Ikastetxe bateko Tutoretza Ekintzako Planak gutxienez honako idatz-zatiak izango ditu:

a) Tutoretzan aztertuko diren gaitasunak, helburuak eta edukiak (orientazio eta jarraipenekoak) ikasleen premietara egokitutakoak.

b) Arlo ezberdinetan tutoreei dagozkien ekintzak: ikasleak, irakasle-taldea, familiak eta bestelakoak.

c) Ikasturtean zehar ekintza horiek planifikatzea.

d) Planaren ebaluazio-irizpideak.

5.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Tutoretzako Ekintza Plana egin eta garatzeko orientabideak emango ditu eta hau irakasleek ikastetxeari eskaintzen dieten dedikazio zuzeneko ordutegian garatuko da batez ere, ikasleen banakako eta taldeko arreta hobe izateko.

## ERANSKINA I

Dokumentu hau Ibaizabaleko Tutoretza Planean oinarritzen da. Tutoretza planak tutorearentzako gida izatea helburu badu ere, dokumentu honetan zehatz mehatz batxilergoan aurkitu daitezkeen tutore figura desberdinen funtzioak agertzen dira.

Hezkuntzaren helburu nagusia pertsonaren ahalmenak garatzea da; horretarako, ikaskuntzako esperientziak sortu behar dira, pertsonak behar dituen konpetentziak eskura ditzan, bizitzak eskatzen dizkion egoerei aurre egiteko. Orientazioa eta Tutoretza prozesua hertsiki lotuta daude hezkuntzaren helburuekin eta hezkuntza konpetentzia orokorrekin, eta horiek lortzearen zerbitzura daude. Denek laguntzen dute pertsonaren garapena lortzen, dimentsio indibidualan, sozialean eta naturalean eta hezkuntza konpetentzia orokorrak lortzen (ikasten eta pentsatzen ikasi, komunikatzen ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi, norbera izaten ikasi eta egiten eta ekiten ikasi). (*Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculum*)

### 1. Tutore pertsonalaren funtzioak

- Ikasturte hasierako tutoretza planaren bileran parte hartu.
- Zerrendak errebisatu (gelaka, irakasleka, tutoreka, aukerazko ikasgaika, ...) (Oso garrantzitsua: jantokia / autobusa / helbide elektronikoak / telefonoak / bekak / 1. mailako pendienteak)
- Tutoretza kuadernoa prestatu; Ikaslearen fitxa sortu (matrikula, ikasleen txostena, ...)
- Korreoa (gmailean) taldeak sortu (guraso, ikasle, euskaraz, bietan, ...)
- Kurtso hasierako bileran parte hartu (gurasoekin ) **ikus ppt**
- Gurasoentzat antolatzen diren orientazio topaketetan parte hartu (abendua)
- Ikasleek EHUko tramiteak egin dituztela bermatu
- Ebaluazio bileretan parte hartu eta tutorpekoen jarraipena egin
- Ikaslearekin bilerak:
  - Ikasturtean zehar gutxienez ikaslearekin elkarrizketa indibidual bat eduki
  - Bileretan landu beharrekoa: ikus **ikasleekin bilerak** dokumentua
  - Ibilbide Akademikoan lagundu
  - Ikastolan integratzen lagundu / une larrietan aholkuak eman
  - Orientazio akademiko profesionalean lagundu
  - Ikasleen eskaerak, kezak, kexak eta abar bideratu
  - EHUko, Lanbide Heziketako, ...tramiteen berri eman ikasleei (Goi Mailako zikloak, sarbide frogak, ...)
- Gurasoekin bilerak:
  - Ikasturtean zehar gutxienez gurasoekin 2 elkarrizketa indibidual eduki
  - Bileretan landu beharrekoa: ikus **gurasoekin bilerak** dokumentua
  - Erregistroa eraman
- Ikaslearen jarraipena
  - Asistentzia-hutsegiteak, puntualtasuna eta diziplina-hutsegiteak kontrolatu eta gurasoei jakinarazi
  - Notak eta oharrak garaiz jarrita dauden ziurtatu
- Klasean egiten diren tutoretza saioen jarraipena egin
- Matrikulazio kanpainan parte hartu
- Auzolanean parte hartu (Gelako tutore batekin koordinatu)
- Agur ekitaldia antolatu eta parte hartu
- Ikasketa Bidaian parte hartu (2.mailakoen artean koordinazioa)

- Kurtso hasierako irteeran parte hartu (1. Mailakoen artean koordinazioa)
- Udako ekintzak antolatu eta parte hartu (1. Mailakoen artean koordinazioa)

## 2. Gelako tutorearen funtzioak

- Tutore pertsonalaren funtzioak bete.
- Tutoreen koordinazio bileretan parte hartu.
- Klaseko tutoretzak dinamizatu.
- Autobusen paradak kudeatu (berriak badaude).
- Ikasturte hasieran gelak prestatu (mahaiak, erratzak, hiztegiak, txukuntasun plantillak, kortxerak, garbitasun zerrendak, apalak, takillak, birziklatzeko txokoak)
- Agenda banatu eta egutegia aurkeztu (zuriz joango da)
- Takillen giltzak kudeaketa. Banatu, jaso, egunean mantendu
- Ikasleei argazkia eskatu eta dagokion plantilla irakasle taldeari zabaldu
- Jarraipen bilerak eta ebaluazio bilerak bideratu.
  - Irakasleek idatzitako oharrak irakurri eta banakako txostenak prestatu, bilera hasi baino lehen
  - Ikasleen eta taldearen egoera akademikoa aztertu
  - Hezkuntza-premiak antzeman eta beroriei erantzuna eman
  - Irakasleen interbentzioak koordinatu
  - Tutoretzetan EHUKo, Lanbide Heziketako, ...tramiteen berri eman ikasleei (Goi Mailako zikloak, sarbide frogak,)
- Gelako auzolana: klaseko deialdia egin eta auzolana antolatu eta bideratu ikus **auzolana argibidea**
- Gelarako diren oharrak pasatu. Orokorrak direnak zuzendaritzak pasatuko ditu.
- Gela txukun mantentzeaz arduratuko da. Horretarako ikus **Gelaren txukuntasuna argibidea**

## 3. Gelaren txukuntasuna

Ikastola txukun mantentzea guztion zeregina bada ere, ikasgelako azken arduraduna gela horretako **Tutore erreferentea** izango da. Hauek izango dira ardurak:

### 1. Gelaren paisaia zaindu

- Aulkiak jasota utzi behar dira
- Leihoak itxita utzi behar dira
- Ordenagailua eta proiektorea itzalita utzi behar dira
- IKT-ko materiala (sagua, teklatura...) ondo dagoela ziurtatu.
- Argiak itzali
- Atea giltzaz itxi.
- Leihoetatik ezin da ezer bota. Parkinean agertzen direnen arduradun gainean dauden bi geletakoak izango dute. Inor ez bada jaurtitakoaren arduradun agertzen, zozketaz bi geletako hiruna lagunek garbituko dute hurrengo atsedenaldira.
- Mahaiak garbi. Mahaia zikin dutenak jolasordu batean garbitu beharko du. Berehalako neurria izan behar da.
- Takilak itxita eta takilen goiko parteak libre egon behar dute. Denbora luzez dauden gauzak bota (arropa, aterkin, mozerro...)
- Hormetan, ateetan, dauden kartel edota pegatinak kendu.
- Gelan denbora luzez pilatuta egoten diren aterkin, mozerro, arropak,... kendu.

- Egunero, klaseak bukatzean gela garbituko da. Horretarako garbiketa zerrenda egongo da kortxeran. Ebaluaketero, garbiketa zerrenda eguneratuta dagoela ziurtatu behar da
- Ebaluaketero, azterketak baino lehen, klasea garbitu egingo da dagokion tutoretzan. Horretarako prozedimendua hurrengoia izango da:
  - Baldeak, zapi umelak eta xaboia “pezeratik” hartu eta garbi bueltatu, aurkitutako moduan

## 2. **Gelarako baliabideak** egoera egokian daudela ziurtatu

- Erratz bi eta batzeko bat dagoela ziurtatu
- Erlojua badabilela ziurtatu
- Takillen funtzionamendu egokia
- Kortxeran dagoen informazioa txukun dagoela ziurtatu
- Proiektorea + mandoa+teklatura+sagua
- Mahai eta aulki kopuru egokiak
- Eskulanetarako 0.2.gela erabiltzen bada bertako arautegia bete ( bertan jarrita dago)

## 3. **Konpontzekoak erregistratu** (Astean behin gutxienez egin beharrekoak)

- Apurtuta daudenak dagokien plantillan (mantenu plantilla, IKT plantillan...) idatzi.. Gelako elementuak zaintzearen garrantzia azpimarratu ikasleei. Zerbait apurtzen denean eta erruduna agertzen ez denean denak egingo dira erantzule (sagua, proiektorearen, mandoa,...).Arazo larria bada zuzendaritzan komunikatuko du.
- Ikasleei gogoratu ezin direla klaseko ordenagailua eta bozgorailuak erabili.

## 4. **Klaseko kortxeraren eguneraketa**

- Ikasleei gelako kortxera zertarako erabili behar den azaldu
- Kortxera hau ikastolako dokumentuak jartzeko da. Ikasleek karrajoetan dauden kortxerak (ez hormak) erabili ditzakete euren kartelak eta deialdiak egiteko.
- Tutoreak kortxera txukun eta eguneratuta mantendu behar du. Gutxienez astean behin dataz kanpo daudenak kendu behar dira.
- Ikasleei gogoratu pegatinarik ezin dela jarri. Jarrita badaude tutoreak kendu beharko ditu.
- Kortxeran beti egon behar diren dokumentuak:
  - Ikasturteko egutegia
  - Ikasgelako ordutegia
  - Garbiketa txandak
  - Agendako konpromisuak
  - Jantokiko txandak
- Sasoi batzuetan egongo diren dokumentuak
  - Azterketen ordena
  - Autobusen ordutegi berezia (gaztainerre, udaberri,...)
  - Eskolaz kanpoko ekintzetako kartelak
  - Orientazio saioetarako kartelak
  - Eskolaz kanpo egiten diren ekintzetarako zerrendak, argibideak,..

## 4. **Auzolana**

### Helburua



Ikastolako mantenu lanak gurasoekin egitea. Bakoitzak dakiena eginez (garbitu, elektrizista lanak, joste lanak, pintore lana, harotz, muntaiak,... denetariko lanak.

### Zer eskatzen da?

Bazkideak diren etxe bakoitzetik kide bat etortzea (aita, ama edo ikaslea bera). Larunbat goizez, 9:00etan hasi eta 13:00ak arte (12:30etan lanak amaitu eta jasotzen hasi, gauza denak batu, garbitu eta bere lekuan uzteko). 13:00ak aldera mokadutxoak jan eta etxera. Horretarako bazkideak larunbat bat izango du (guraso bileran emango da honen berri; baita gurasoen atalean, web orrian ere). Esleitutako egunean ezin badu, beste taldekoen auzolan egunetan etortzeko aukera izango du.

Era berean, lantaldeko langile guztiei ere larunbat bat auzolanetan emateko eskatuko zaie (Plenarioan komentatu daiteke)

### Tutoreen eginbeharrak

#### 1. Zereginen zerrenda egin:

- Bi aste lehenago tutore erreferenteak auzolana iragarri eta gela **MANTENU PLANTILLA OROKORRA** betetzeko eskatuz mezu bat bidaliko du lantaldera.
- Auzolan asteko astelehenean Rosirekin bilduko da zereginak errebisatzeko, "Eginbeharrak xxx" dokumentua idazteko eta behar diren gauza guztiak (egunean bertan erabiliko direnak) prest uzteko.
- Dokumentu hau zehatza izatea komeni da (zeregin bakoitza burutzeko behar den pertsona kopurua, materiala,...)
- Dokumentu honetan beti egongo dira badaezpadako zeregin orokor batzuk jasota (jende asko baletor, lana banatu ahal izateko).
- Erosi beharreko materialak aurrez erosi (Rosi??) eta auzolan bezperan prest utzi material guztia, behar den leku horretan.

#### 2. Gurasoei deialdia egin:

Aurreko ostegunean (Rosirekin egon eta gero) gutuna bidaliko du etxeetara (ikus deialdia):

- Eguna eta orduaren berri emanez.
- Egin behar diren lanak zerrendatuz. Gomendatu arropa zaharrak ekartzeko
- Konfirmazioa eskatuz
- Aurreko deialdietan etorri ez direnei ere idatziko zaie. Horretarako aurreko auzolanean parte hartu zuten tutoreekin koordinatuko da.

(Rosiren bidez) Asteburuko langileari abisua pasatuko zaio **hamaietako** prestatu beharko duela aurreratuz.

#### 3. Argazki kamera prest utziko du auzolan egunean argazkiak atera ahal izateko.

#### 4. "Eginbeharrakxxx" dokumentuaren **kopiak** aterako ditu, datozen gurasoen artean banatzeko.

#### 5. Larunbatean:

- Gurasoak 09:00etan datozen arren, arduradunak 08:30etan etorriko dira gauzak antolatzen hasteko: gelak zabalik itxi, materiala eskura jarri, zereginak eta lan taldeak errebisatu, ...

- Etorri direnen izenak jasoko ditu (etorri ez direnei hurrengo auzolanetarako gonbiteak luzatu ahal izateko).
- Gurasoekin zereginen dokumentua irakurriko du, lanen berri emanez eta gurasoak taldeetan banatuz. Talde bakoitzari zereginen orriaren kopia bat emango dio.
- Hamaiketako ordua zehaztuko du tabernari eta guraso taldearekin.
- Argazkiak aterako ditu egunean zehar.
- Lanak bukatu aurretik, material guztia garbitu, jaso eta bere lekuan gordetzen dela ziurtatuko du.
- Joan aurretik gela guztiak itxita geratzen direla ziurtatuko du.

#### **6. Hurrengo astean:**

- Argazkiak multimedia karpetan kopiatu, memoria hustu eta bateria kargatzen jarriko du.
- Argazki pare bat pasatuko dizkio Egoitzi, honek albiste moduan webera igoteko.
- “Auzolanaren balorazioa egiteko” ppt-a beteko du (zenbat lagun, zenbat ordu,...diruaurrestea 20euro/lan orduko)
- Gurasoei bidaliko zaie ppta eskerrak emanez eta etorri ez direnei hurrengo auzolanerako gonbitea luzatuz.

ERANSKINA II

**GELETAN FALTA DIREN GAUZAK jasotzeko plantila**

**DATA:**

	1A (2.1)	1B (2..2)	1C (2.3)	1D (2.3)	2A (1.1)	2B (1.2)	2C (1.3)	2D	HH1 (0.2)	HH2 (0.3)
PERTXEROAK										
KORTXERAK										
ERLOJUA										
PARAGUEROA										
APALAK (hiztegiak...)										
PROIEKTATZEKO PANTAIA										
ERRATZAK										
REKOGEDOREAK										
ERRATZAK ZINTZILIKATZEKO GAILUA										
BORRADOREAK										
IRAKASLE MAHAIA + AULKIA										
SOLAIRU BAKOITZENDAKO KORTXERA HANDI BAT										

## ERANSKINA III

### ORIENTATZAILEAREN FUNTZIOAK

- Ikastolara heltzen den dokumentazioa artxibatu eta egunean mantendu
- Gurasoentzat antolatzen den orientazio saioa bideratu
- Orientatzailearen koadernoan egin (ikasle eta gurasoekin egingo diren aurkezpenak prestatu, informazioa egunean mantendu)
- 2. mailako tutoreei aholku eman / lagundu euren ikasleen orientazioan zalantzak dituztenean
- 2. mailako tutoreek urtean zehar erabiliko dituzten dokumentuak errebisatu eta egunean mantendu.
- Guraso bilera gela / orientatzailearen gela txukun mantendu
- Orientatzaileen mintegian parte hartu
- 2. mailako tutoretza bilerak gidatu
- EHUUn praktikak
- Sarbide frogaren kudeaketa:
  - Ikasleak altan (eskariak bideratu)
  - Informazioa pasatu (apunteak, azterketak, kokalekuak, ordutegiak, ..)
- Orientazio ekintzak antolatu (azaroan 1. ebaluazioa eta gero):
  - Hiltzaldi informatiboak
    - Fakultateetako adituekin (EHU, MU; Deustu, ...)
    - Ikasle Ohiekin
    - Gurasoekin (¿)
  - Orientazio jardunaldiak (UNITOUR)
- EHUko tramiteak burutu (IB)
  - Ikasleak altan eman aplikatiboan (urtarrila)
  - Datuen jarraipena egin
  - Aplikatiboa itxi / Aktak bidali
  - Batez besteko notak.